# *‘Antsietatea eta ondoez emozionalaren kudeaketa: gazteekin lan egiteko tresnak’* ikastaroaren balorazioa

***Gazteen Euskal Behatokiak 2023ko formakuntza planeko hiru ikastaro antolatu ditu ekainean***

***‘Antsietatea eta ondoez emozionalaren kudeaketa: gazteekin lan egiteko tresnak’*** ikastaroaren hiru edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak ekainean. Formazio honen helburu nagusia honako hau izan da: bertaratutakoek gazteekin egiten duten lanerako estrategiak ezagutzea.

Ikastaroak **Ernesto Gutierrez Crespok** eman ditu. Psikologo eta pedagogoa, Euskadiko Psikopedagogia Elkartearen Presidentea eta Deustuko Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitatearen irakasle laguntzailea.

**77 lagunek** partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilekin:

- % 76 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 24 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.

Ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

**Ikastaroaren balorazioa**
**(batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)**




***Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta***